

Musika

Txikitan opera-zuzendaria izan nahi nuen (lanaldi erdian, ze beste erdian detektibe pribatu gisa egin nahi nuen lan). Hamaika urtez pianoa ikasten ibili nintzen. Hiruzpalau urtez, kantua. Nire ibilbideari ukitu folk bat gehitze-ko, panderoa jotzen ere ikasi nuen.

Orain iPod baten jabe izatearekin konformatzen naiz. Belarrietan daramat autobusez bidaiatzen dudanean –egunero–, eta aitortut askotan inguruko zalaparta –esan nahi baita: ingurukoen elkarrizketa txepelak– estaltzeko baino ez dudala erabiltzen. Ez dakit nola definitu daitekeen beraz musikarekiko nire harremana. Dakidan gauza bakarra da ez naizela bakarra.

Gaur bertan emakume beltz lirain bat ikusi dut Deustutik pasieran. Atso konkortu bat zeraman besotik zintzilik. 0,2 kilometro orduko abiadura kalkulatuta diet. Albotik pasa natzaieanean emakume beltzak aurikularrak zeramatzala ikusi dut, ezpainak ere apal mugitzen zituen, kanta jarraituz. Amona paseatzeko kontratatu zutenean ez zioten isolamendu mota hori gaitzetsi, antza denez.

Batzuetan, egia esan, kontrakorako balio du musikak. Isolatzeko baino gehiago, jendez inguratuta gaudela gogorazteko. Adibidez, igerilekuan. Nire bizimodu sedentarioa zuritzeko modua dut igeri egitea. Piszina erdia libreki igeri egin nahi dugunontzat dago erre-serbatuta. Beste aldean ikastaroak burutzen dira: *aqua spinning* eta horrelakoak. Antza denez, musika burrunbatsuarekin batera aurrera eraman beharreko ikastaroak. Eta areto osoa betetzen da Shakiraz, Carlos Bautez eta Malúz.

Bolumenak desesperatzen nau. Ur azpian bakarrik lortzen dut bakea, baina urpekari-tzan ez naiz iaioa, eta berehala atera behar dut burua, arnasa hartu eta Rihanna entzun. Belarrietarako tapoiek ere ezer gutxirako balio dute.



INIGO AZKONA

Katixa Agirre

Rodriguez

Ollasagarre

*Aqua spinning*ean dihardutenei ez ei zaie axola. Niri bai. Milionarioa izateko gogoia pizten du, etxean igerileku estali bat izateko, eta bertan, uraren plisti-plasta baino ez.

Baina musika ez da beti dantzalekukoa. Badago euskaraz eskainitako igeriketa ikastaro bat. Taldea emakumez bakarrik osatuta dago. Aldageletan entzun ditudan elkarrizketengatik, maistrak dira guztiak. Eta haiek ez dituzte El Canto del Loco edo Kate Ryan agoantatu behar. Haientzat Basque Nostalgia diskoa prestatu dute igerilekuko monitoreek: *Lau Teilatu, Xalbadorren heriotza, Ihesa zilegi balitz*... Aukeran, nik ere Mikel Laboa nahiago, horregatik euskal ikastaroaren ordu-tegia gogoratu eta ordu horietan hurbiltzen saiatzen naiz. Lasaiago egiten dut igeri, baina aldi berean ezinegona eragiten dit euskal taldearen ezaugarri bereizgarriak. Erdarazko taldeei gaur egungo kopa-tabernetan entzuteko moduko musika dagokie, musika alaia eta festa girokoa, mugitzera gonbidatzen duena. Euskarazkoari berriz betiko euskal kantutegiko doinurik solemneenak, malenkoniatsuenak, kirola egiteko gogorik pizten ez dutenak. Zergatik?

* * *

Askotan pentsatu dut blogean atal berri bat zabaldu behar dudala. Igerilekuko Aldageletan Entzundako Elkarrizketak izena jarriko nioke. Sekulakoak entzuten baitira, iPoda edo igerilekuko musika faltan botatzeko moduko gauzak. Aurrekoan, bi emakume, mitxelinei buruz hizketan. Batak: “Ba nirekin ez dago modurik, ez dut kilo bat ere irabaz-

ten. Estresagatik da, ama ospitalean daukat, bakarrik nago bi umeekin, lanean ere sekulako gatazkak ditut... estresak jaten dizkit kaloria guztiak”. Eta besteak: “Zelako inbidia, neska...” Atal txukuna osatu dezaket, ziur nago. ■

⏪ Batzuetan, egia esan, kontrakorako balio du musikak.

Isolatzeko baino gehiago, jendez inguratuta gaudela gogorazteko. Adibidez, igerilekuan

⏩